



AGINDUA, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2024rako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Euskadi Sarien epaimahaien osaera argitaratzen duena.

2024ko irailaren 25ean argitaratu zen EHAA 2024ko irailaren 11ko Agindua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2024rako Euskadiko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sarien oinarriak arautzen dituena.

Turismoa, merkataritza eta kontsumoa oso lotuta dauden hiru arlo dira, eta, horregatik, arlo horietako politika publikoen plangintzan eta kudeaketan zeharkakotasuna da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren funtsezko lan-ildoetako bat.

Sariei buruzko Agindu horrek turismoaren, merkataritzaren eta kontsumoaren sektoreei, oro har, eta, zehazki, beren ahalegin eta dedikazioaren bidez beren ospea areagotzen laguntzen duten profesionalei, enpresaburuei, edo erakundeei egiten die esker ona.

Oinarri arautzaileetan ezartzen da epaimahai bat eratuko dela sari bakoitzerako hautagaitzak baloratzeko.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Euskadi Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sarietarako hautagaitzak baloratzeko epaimahaien izendapena argitara ematea.

BIGARRENA.- Turismoko Euskadi Sariaren epaimahaiaren osaera:

Mahaiburua: Jakes Aguirrezabal Iribar jauna, Turismo eta Merkataritzako sailburuordea.

Epaimahaiburu ordea: Clara Navas Romano andrea, Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria.

Batzordekideak:

- Daniel Solana Alonso jauna, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziako zuzendaria.
- Leire Sáez Ríos anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo zuzendaria.
- Isabel Aguirrezabala anderea, Donostia Turismo-ko zuzendaria.
- Ainhoa Domínguez anderea, APIT EUSKADI.
- Kino Martínez jauna, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte.
- Olaia Arrieta anderea, Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera.



Idazkaritza: Ana Sarriegui Fortún andrea, Turismoa Sustatzeko Teknikaria.

HIRUGARRENA.- Merkataritzako Euskadi Sariaren epaimahaiaren osaera:

Mahaiburua: Jakes Aguirrezabal Iribar jauna, Turismo eta Merkataritzako sailburuordea.

Epaimahaiburu ordea: Izaskun Gómez Cermeño andrea, Merkataritzako zuzendaria.

Batzordekideak:

- Julia Diéguez andrea, Euskadiko Merkataritza Konfederazioaren ordezkaria.
- Xabier Aldalur jauna, Euskaldendak-Euskadiko Merkataria, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarteen Konfederazioaren ordezkaria.
- Nerea Rodriguez andrea, Euskal hiriburuetakoko merkataritza-plataformetako bateko ordezkaria.
- Miriam Santos andrea, EAEko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberen ordezkaria.
- Natalia Fernández andrea, Euskalit-Kalitaterako Euskal Fundazioko ordezkaria.

Idazkaritza: Estibaliz Martinez-Ocio andrea, Merkataritzako teknikaria.

LAUGARRENA.- Kontsumoko Euskadi Sariaren epaimahaiaren osaera:

Mahaiburua: Tontxu Rodríguez Esquerdo jauna, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendaria.

Batzordekideak:

- Ainhoa Basabe Meléndez andrea, Sestaoko alkatea.
- Koldo Nabaskués Simón jauna, EKA/ACUVeko lehendakaria.

Idazkaritza:

- Nazareth Holgado Freixo andrea, Kontsumobideko Plangintza, Azterlan, Prestakuntza eta Informazioko unitatearen arduraduna.

BOSGARRENA.- Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.